

GURE IRAKURGELA

DRAGOI-ZALDIZKOEN ITZULERA

Manu Lopez Gaseni

Marketing anglosaxoirik samurrenez lagunduta dator "Eragon", euskal apaletara heldu den azken best-seller-a. Oraindik gogoan dugula Rowling andrearen irudia tabernazulo batean ume jaioberrira besartean Harry Potter-en lehen orrialdeak idazten, Christopher Paolini gaztea aurkezten digute orain, elurtutako mendiez inguratutako etxalde batean gurasoek hezia, hamabost urterekin dragoiei buruzko istorio bat idazten hasi



Liburua: "Eragon"
Egilea: Christopher Paolini.
Itzultzailea: Fernando Morillo.
Argitaletxea: Elkar, 2006.

zela... Urteak joan dira eta, espero zitekeen bezala, "Eragon" liburuak mundu osoan saldutako aleak milioika kontaktzen dira. Gurean, berriz, abentura halekin txunditutako idazle batek euskaldungoari ezagutarazi nahian euskaratutako liburu gisa aurkeztu da amerikar gaztearen obra.

Eragon hamasei urteko baserritar bat da, halabeharrez jakin duena Alagaësia bere herria askatzeko jaioa dela. Hasiera batean ez du bere patua onartu nahi, baina hori ere heroien ezaugarria da, dragoi-zaldizkoen leinukoa

dela adierazten dion eskuko marka bezala. Aliatuen bila eramango duen bide luze eta arriskuz beteari ekingo dio, jadanik Saphira dragoi emearen eta Brom ipuin kontalari eta inizatzailearen laguntzarekin, eta hala lortuko du gaizkia haragiztatzen duten indarrak garaitzea, magia lagun. Bistan denez, Harry Potter-enetan ezagun genituen ezaugarri askoren jabe da "Eragon"; eta bidean topatzen dituen izaki mota desberdinek ere (elfoak, urgaloak, nanoak, vardenoak...) "Eratzunen jauna" eta haren ondorioz sortutako "fantasy" generoko beste ekoizpen asko

dakarzkigute gogora. Irakurle gazteen aurrean zabaltzen den fantasiarako mundua oso identifikagarria gertatzen zaie, gehiago azken boladak filmengatik jatorrizko testuengatik baino.

Aipatutako erreparoz guztiekin ere, ustekabez jositako ekintza oso ondo eramanda dago, protagonistaren psikologiaren garapena ere bai eta, azken batean, liburua oso ondo irakurtzen da, irakurle gazteei zuzenduta dagoela kontuan izanda. Fernando Morilloren itzulpena ere aipatzekoa da, lexiko aberatsaz eta ondo eramandako sintaxiaz aldatu duelako testua.